

METODOAK. Testu historikoen iruzkina

Dokumentu edo testu historiko bat azterzea eta horri buruzko iruzkina egitea historialariek egunero egiten duten lanetako bat da; izan ere, gizadiaren historia (idazkera sortu zenetik) batez ere idatzizko dokumentuak irakurritik eta aztertuz berreraikitzen saiatzen dira.

1. Testu historikoa ezagutzea

- **Testua bere osotasunean ulertu arte behin eta berri irakurtzea.** Hitz, termino edo kontzeptu baten esanahia ulertzen ez bada, beharrezkoa da hiztegia edo eskuliburuan bilatzea, edo irakasleari galdetzea. Komeni da adierazi nahi duen **argumentua** eta ideia nagusiak ulertzea.
- Testuko lerroak **bosnaka** zenbakitzea, horrela testuari buruz egiten diren erreferentziak azkarragoak eta erosoagoak izango dira.
- **Azpimarratu** testuko oinarritzko zatiak. Azpimarratzea eduki garrantzitsuenak barneratzeko oso ariketa egokia da; kontzeptuak, gertaerak, pertsonaiak eta data nagusiak azpimarratzea beharrezkoa da.
- Beharrezkoa bada, **egilearen asmoak** eta dokumentua nori zuzenduta dagoen azaltzea.

2. Testua sailkatzea

Testua sailkatzeak haren mota, gaia, data, egilea eta testuinguru historiko orokorra azaltzea esan nahi du.

- **Mota.** Dokumentua honelakoa izan daiteke:
 - Administratiboa: errolda, katastroa, estatistika, zereendak eta abar.
 - Juridikoa: legeak, dekretuak, konstituzioak, kontratuak, itunak, akordioak, estatutuak eta abar.
 - Narratiboa: liburu, saiakera edo literatura obra batek ateratako iritzi testuak.
 - Kazetaritzakoa: iritzi artikulua, berriak eta egunkariko elkarrizketak.
 - Testigantzakoa: oroitzapenak, autobiografiak, gutunak, egunerokoak, hitzaldiak eta abar.
 - Historiografikoa: Historialariek gai edo gertaera historikoen inguruan idatzitako liburuak edo artikulua.
- **Gaia:** politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala... edo horien guztien nahasketa bat.
- **Data:** noiz idatzi zen dokumentua.
- **Egilea.** Banakakoa (ongi zehaztutako egile bat edo gehiago) edo kolektiboa (taldea) izan daiteke. Lehenengo kasuan, oinarritzko ikertzea komeni da:
 - Lanbidea eta testuarekiko harremana.
 - Oinarritzko datu biografikoak: jaiotza eta heriotza urtea, haren bizitzako gertaera nagusiak eta abar.

- Testuinguru historikoan duen garrantzia.
- Egileak errealitate historikoaren aurrean adierazten dituen elementu subjektiboak.


- Testua zein **testuinguru historiko orokorretan** garatu zen.

3. Iruzkina garatzea

Iruzkina dokumentu bateko edukien azterketa da, eta helburua testuinguru historikoan kokatzea da. Horretarako, komeni da sarrera, garapena eta ondorioa egitea.

- **Sarrerak** testua aurkezten du. Ondoko ezaugarriak adierazi behar ditu:
 - Testu mota.
 - Sortze data.
 - Egilea, testuarekin duen harremana eta haren garrantzi historikoa.
 - Testuak kontaktzen duen egoera historikoaren testuinguru historikoa laburtzea.
 - Ideia nagusiak aurkeztea.
- **Garapena** edo azalpena bera. Testua azaltzea eta horri buruzko iruzkina egitea da.
 - a) **Azterketako** urratsak hauek dira:
 - **Adierazten diren ideia nagusiak ateratzea.** Hierarkikoki ordenatu behar dira, ideia nagusietatik hasi eta bigarren mailakoetaraino. Ideia nagusi bakoitza zati batean garatzea komeni da; bigarren mailako ideiak paragrafo banatan aurkeztuko dira, nahiz eta ideia nagusiaren menpe egon eta, beraz, elkarren artean erlazionatuta.
 - **Testuan azaltzen diren kontzeptuak eta elementuak argitzea, eta baita ideia nagusiekin eta bigarren mailakoekin duten lotura ere.** Horretarako, erabilgarria da testuko zatiak literaliki aipatzea eta lerro zenbakiak erabiltzea.
 - b) **Iruzkina** zati hauek ditu:
 - Testuko ideien eta egoera historiko zehatzaren arteko **harremana**.
 - **Kritika eta balorazioa**, adierazten diren ideiak eta argudioak osatzea eta dagokien testuinguruan kokatzea: testuaren sorrera zehazten duten gertaera edo faktoreak, beste dokumentu batzuekin duen harremana, testutik bertatik deduzi daitezkeen ondorio historikoak eta abar.
 - Testuko **objektibotasunaren balorazioa** eta haren ekarpen historikoaren **kritika**.
- **Ondorioak** zati hauek ditu:
 - Iruzkina emaitzen **laburpena** paragrafo labur batean edo bitan.
 - Bere garaian testuaren edukiak izan zuen garrantziaren **sintesia**.

ADIBIDEA: Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa (1789)



Frantsesen ordezkariak, Batzar Nazionalan [B] elkartuta, erabaki dute, giza eskubideen inguruko ezjakintasuna, ahaztura eta mespretxua gaitz publikoen eta gobernuen ustelkeriaren sorburu bakarrak direnez, gizakiaren eskubide besterenezinak eta sakratuak adieraztea, deklarazio hau [A] gizarteko kide guztiei jakinarazteko, etengabe gogoan izan ditzaten beren eskubideak nahiz betebeharrak. Hartara, botere legegilearen eta botere betearazlearen egingtzak [C], edonoiz erakunde politiko guztien helburuarekin alderatu ahal izango direnak, gehiago errespetatuko dituzte; eta herritarren erreklamazioak, hemendik aurrera oinarri soil eta zalantzaezinetan zurkaiztuko direnak, Konstituzioa bera eta guztion ongizatea ziurtatzeko laungarri izan daitezzen [C].

Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioaren sarrera, 1789 [A]

1. Testua ezagutzea

Testua irakurtzerakoan ondoko giltzarriak erabili dira:

- **Azpimarra:** ideia nagusiak.
- **Azpimarra bikoitza:** dokumentua ulertzeko ezagutu behar diren oinarritzko kontzeptuak.
- **A:** data, dokumentu mota eta dokumentuaren ideia nagusia.
- **B:** dokumentuaren egilea.
- **C:** dokumentuaren helburua edo funtzioa.
- **Idea nagusiak** «gizakiaren eskubide besterenezinak eta sakratuak adieraztea».

2. Testua sailkatzea

- **Mota.** Testua juridikoa da, eskubideen deklarazio bati baitagokio.
- **Gaia.** Politikoa da. Dokumentua 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioaren sarrera da; Frantzian iraultzaren ondoren ezarri zuten sistema politiko berriaren zutabeetako bat.
- **Data.** 1789.
- **Egilea.** Kolektiboa. Batzar Nazionala.
- **Testuinguru historikoa.** Frantziako Iraultza Europako iraultza liberalen zikloaren abiapuntua izan zen. XVIII. mendean hasi eta XIX. mendean zehar iraun zuen ziklo horrek.

3. Iruzkina garatzea

• Sarrera

Testura lehen hurbilketa egin ondoren, idatziz garatuko dira datuak: aurretiaz azpimarratutako ideia nagusiak eta dokumentuaren helburua. Eta testuinguru historikoa ere labur-labur azalduko da: Frantziako Iraultzaren hasierako garaia, Asanblada Legegilearen sorrera eta Erregimen Zaharraren gainbehera.

• Garapena

Testuko ideiak azaltzea: XVIII. mendearen amaieran Frantzia gertatutako aldaketa politikoaren, sozialen eta ideologikoen ondorioz, Erregimen Zaharraren krisia abiarazi zen.

Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa interpretatzea, Batzar Nazionalaren sorreraren eta Frantziako Iraultzaren argitan. Deklarazio horrek historian izan duen garrantzia baloratzea.

Frantzian onartutako Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa XVIII. mendearen amaieran giza eskubideen alde onartutako bestelako deklarazioekin lotzea.

• Ondorioa

Dokumentuko ideia nagusiak laburbiltzea, Erregimen Zaharraren aurkako adierazpen gisa eta XIX. mendeko gizarte liberalaren aurrerapen gisa izan zuen garrantzia baloratuz.